


## Endometriosa, bakterio baten eraginez sortua?

Endometriosiak ugaltze-adinean dauden emakumeen % 15i eragiten badio ere, ez da nahikoa ikertu, eta ez dira ondo ezagutzen haren atzean dauden mekanismoak. Orain, Japonian egin duten ikerketa batean iradoki dute tartean eragile infekzioso bat egon daitekeela; *Fusobacterium* generoko bakterio bat, hain zuzen.

Azaldu dutenez, 155 emakume japoniar aztertu dituzte, eta endometriosa zutenen erdietan baino gehiagotan aurkitu dute bakterioa. Aldiz, kontrolaldean % 7k baino ez zuten.

Horrez gain, endometriosa ikertzeko erabiltzen diren sagu eredueta frogatu dute *Fusobacterium* inokulatuta endometriosiaren sintomak eta lesioak okertu egiten direla. Eta are gehiago: metronidazol eta kloranfenikolarekin egindako tratamendu antibiotikoeekin, lesioak arindu egiten dira.



Obarioko endometriosa. ARG.: Nephron/CC 3.0.

Horrenbestez, ondorioztatu dute litekeena dela *Fusobacterium*-en infekzioak endometriosiaren patogenesia eragitea. Beste etnia batzuetako emakumeak aztertzea, eta antibiotikoen bidezko tratamendua ikertzea proposatu dute. ●

## Arrautza ala narrastiak, zer izan zen lehenago?

Litekeena da lehen narrastiek arrautzarik ez jartzea, eta zuzenean kumeak jaiotzea. Horixe ondorioztatu dute ikertzaile batzuek, [Nature Ecology & Evolution aldizkarian argitaratu duten lan batean](#).



ARG.: PxHere

Orain arte, pentsatu izan da oskoldun arrautza giltzarri izan zela ornodunek uretatik lehorrera egiteko. Bada, 51 espezie fosil eta 29 espezie bizi aztertuta, ondorioztatu dute lehorreko ornodunen lerro ebolutibo nagusien (narrasti, hegazti eta ugaztun) arbasoek ez zutela arrautzarik jartzen, eta enbrioiak amaren barruan garatzen zirela.

Hain zuzen ere, ikerketa honen arabera, enbrioiak amaren barruan denbora batez mantentzea izan zen ornodunak lehorrera egokitze lehen giltzarrietako bat; eta ondoren etorri zen oskol gogorreko arrautza. ●